



2011KO ABENDUAREN 22KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako abenduaren hogeita bian, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2011ko urriaren 27an egindako ohiko bilkurako akta eta 2011ko urriaren 27an eta azaroaren 2an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen di-relarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- EUSKARAREN ERABILERAREN PLANA, PLAN ESTRATEGIKOAREN LUZAPENA.-

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2008ko abenduaren 18an egindako batzaraldian, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian barneratzen den Plan Estrategikoa onartu zuen.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Saitetik udal honi jakinarazi dio Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa garatzeko epea bukatzeaz dagoela eta bere gomendioa berritzea edo lehengoaren luzapena egitea izan da.

Hori horrela eta Euskara eta Hezkuntza Batzordeak Osoko Bilkura honi proposatzen dio Lazkaoko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan nagusian barneratzen den 2009-2011 eperako Plan Estrategikoa 2012ra luzatzea onar dezala.

Serna zinegotziak (PSE-EE) dokumentazioa bietara bidaltzearen ohitura berreskuratzea eskatzen du. Esaten du baita ere puntu honetan abstenitu egingo dela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 12 botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE) Lazkaoko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan na-



gusian barneratzen den 2009-2011 eperako Plan Estrategikoa 2012ra luzatzea onartzen du.

IV.- UDALAK PARTE HARTZEN DUEN HAINBAT ERAKUNDEETAN ORDEZKARIEN IZENDAPENA.-

Alkateak Udalak parte hartzen duen erakundeetan izendatuta dauden ordezkarietan ondorengo aldaketa eta izendapen berriak proposatzen ditu:

Ikaslan Fundazioa: lehen ordezkaria Azeari Andonegi Beristain; orain proposatzen dena, Arantxa Bengoa Gorosabel.

Enerio-Aralar Mankomunitatea: lehen ordezkaria Azeari Andonegi Beristain; orain proposatzen dena, Andoitz Garmendia Zubeldia.

Tolosako Hiltegi Mankomunitatea: Lazkaori bi ordezkari dagozkio eta bat bakarra dago izendatuta, bera; eta hori horrela bigarren ordezkari Andoitz Garmendia Zubeldia proposatzen du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten hasieran izendapenak egin zirenean ez zutela alde bozkatu baina orain egiten diren proposamenak logika baten barruan egiten direnak izanik, alde bozkatuko dutela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 12 botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE) proposatutako ordezkariak onartu egiten ditu.

V.- BI ERROTONDA EGITEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENAREN ALDAKETA.-

Aurreko legegintzaldiaren amaieran bi errotonda eta bidegorri zati bat egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmenaren inguruan, udal gobenu berriak epeak atzeratzea eskatu zion Aldundiari, hasiera 2011tik 2012ra atzeratuz eta 2011rako aurrikusitako diru kopuruak 2012koei batuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin du eskatutako atzeratzea eta epeen atzerapen horiek jasoz aldatutako hitzarmenaren izenpetzea planteatzen da. Hitzarmena gainontzean lehengo bera da. Eta hori da hain zuzen ere Osoko Bilkura honetara ekarri dena honek bere onarpena eman dezaion.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du eskertzen dutela akordio hau berriro izenpetzen dela ikustea, izan ere arriskuan ikusi dute azken hilabete hauetan eta espero dutela hau herriko hain garrantzitsua den gune horretako garapenaren lanari seriooki heltzearen hasiera izatea, garapen horrek herriko beste garapen batzuek baldintzatzen dituelako baita ere.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek alde bozkatuko dutela.

Alkateak esaten du Iturgaitzagaren gaia oso konplexua dela eta horrek eragin due-la atzerapena.



Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Bi errotonda eta bidegorria egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmenaren aldaketa onartzea.
- 2.- Lazkaoko Udalaren izenean aldatutako hitzarmen hau izenpetzeko alkatea ahalmentzea.

VI.- 2012KO AURREKONTUA.-

Jarraian 2012 urterako aurrekontua aurkezten da osoko bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordeak informatuak izan dira.

Goenaga zinegotziak, Ogasun Batzordearen presidente gisa onarpenera aurkeztutako aurrekontuaren azalpena egiten du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du legegintzaldi honetan hiru ardatz dituela beraien programak: bat, ekonomi egoera berri honi aurre egitea dela, batez ere autogestioa bultzatuz, eta batipat merkatari txikiak, autonomoak eta enpresa txikiak kontutan hartuz; bi, bakegintza, ezberdinen arteko harremana eta elkarbizitza bultzatuz; eta hiru, burujabetza, erabakitze eskubidea bultzatuz. Esaten du baita ere aurrekontuan badaudela erabat jaso ez diren puntuak edo kontutan hartu ez direnak, baina bestalde ehuneko zati handi batean aurrekontuarekin adostasun puntuak daudela baita ere. Esaten du baita ere ekonomi egoera honen aurrean neurri zorrotzak hartzearena azpimarratuko lukeela eta esaten du baita ere beraientzat Iturgaitzagako proiektua estrategikoa izaten jarraitzen duela eta proiektu horren inguruan hiru puntu azpimarratuko lituzkela baita ere: alde batetik segurtasunarena, arrisku bate konponketa delako; bigarren, herrian dagoen gunerik zaharkituarena konpontzen du; eta hiru, proiektu hau errealojoen arazoarena konpontzearekin hasi beharko luke, errealojoen alderdirik behartsuenari erantzuten diolako; eta gaineratzen du honek, maila txiki batean bada ere, ekonomia suspertzen laguntzen duela. Eta guzti honengatik aurrekontuaren alde bozkatuko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurka bozkatuko dutela. Gehitzen du aurrekontu jarraitzaileak direla eta horrela erakusten duela EAJren botuak, eta beraiek aurretik aurka bozkatuz zetozela. Esaten du inbertsioen kapituluaren gehientsuenean ados egon baldin balitezke ere, beste kapitulu batzuetan eraikuntza nazionalera bideratutako aurrekontuak direla ez datozela horrekin bat, eta izaera hau aurreko urteetako baino markatua dela eta esaten du baita ere gizarte beharrei erantzuteko partidak mantendu egin direla eta aldiz beste batzuetan, adibidez euskara ikastaroetako partidari, zenbatekoa bikoiztu egin dela.

Alkateak (Bildu) esaten du ez zutela espero aurrekontuaren gai honetan hirigintza-ko hausnarketa horiek ateratzea baina atera direnez esan behar duela beraiek ere behar horiek ikusten dituztela, errealojoen gai horren inguruko hausnarketa egina dutela eta hori bideratzeko ahaleginak egiten ari direla.



Eta guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko ha-mabi botu (Bildu, EAJ) eta aurkako botu batez (PSE-EE), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehen.- 2012 urterako udal aurrekontua hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua har-tzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

2012KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.347.000,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.200.400,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.471.800,25 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	13.500,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA ETA HIRI-GINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTA-KO BESTE SARRERA BATZUK	249.900,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	2.161.733,50 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
		<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>7.545.333,75 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.257.850,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZ. GAST.	3.055.727,05 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	100,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	514.550,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.349.443,50 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	125.300,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	241.363,20 €
		<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>7.545.333,75 €</u>

2012KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	2.958.921,00 €
		<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>2.958.921,00 €</u>

GASTUAK:



II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	136.000,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	21.500,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.801.421,00 €
GASTUAK GUZTIRA			2.958.921,00 €

2012KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.347.000 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.200.400 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.471.800,25 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	13.500,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	3.208.821,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	2.161.733,50 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	0,00 €
SARRERAK GUZTIRA			10.504.254,75 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.257.850,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.191.727,05 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	21.600,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	514.550,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	5.150.864,50 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	125.300,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	241.363,20 €
GASTUAK GUZTIRA			10.504.254,75 €

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VII.- 2012KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako 2012ko Udal Langileen Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.



Osoko Bilkurak, aho batez, 2012ko Lazkaoko Udalaren plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda, bere espedientean daudenak, onartu egiten ditu.

VIII.- AUTOPISTA ELEKTRIKOEN AURKAKO MOZIOA.-

Moziok honela dio:

Arrazoien azalpena

Azterketa Eremuan dauden Udaletan, Ingurumen eta Nekazaritza eta Itsas Ministerioaren Ingurumen Kalitate eta Azterketa Zuzendaritza Nagusiaren jakinarazpen bat jaso zen 2011ko abuztuan, "20110173LIE proiektuan Dicastillo deituriko 400/220 Kv azpiestazio, 400 kV-ko Lineak eta hauei loturiko beste Lineak (Iruñea), Ingurumen-Inpaktuaren Azterketaren gainean egindako kontsultaren erantzuna"-ren inguruan egindako txostena.

Jasotako txostena *Red Electrica de España S.A.* enpresak, Gipuzkoako Itsasoko azpiestazioa eta Dicastilloko 400/220 kv azpiestazioa lotuko dituen 400 kv-ko Linea, eta L/400 kv Castejon-Muruarte Dicastilloarekin elkartzen dituen loturaren proiektuari buruz ari da. Aztertzen diren lotura berriek, 400 kv-ko bi linea (guztira 120 km inguruko luzerarekin) eta 6 ha hartuko lituzkeen azpiestazio elektriko bat aurreikusten ditu.

Proiektu hau Vitoria-Gasteiz/Castejón-Muruarte linea ordezkatzera dator, 2010eko azaroaren 12ko BOE-n ageri den moduan, ingurumenari eragiten zizkion kalte eta proiektuak sortu zuen jendarteko oposizioarengatik baztertua izan zena. Honen ingurutik, eztabaidan jartzen zaigun proiektu honek, aurreko proiektua baztertzea eraman zuten arrazoi berdinak mantentzen ditu, gutxienez intentsitate berdinarekin, handiagoarekin ez bada.

Linea berri honen ezaugarriak aurrekoaren antzekoak dira, hau da, 42/46 metroko altuera duten dorreak, bata bestearengandik 400/500 metroko distantziara, lau oineko hormigoizko oinarriekin, beraien artean 5,90 eta 10,14 metrotako distantzia dagoelarik. Bere inguruan, zuhaitzak landatzea eta etxe eta industria azpiegiturak eraikitzea debekatua gertatzen da.

Ingurumen eta paisaiarekiko eraginak ez dira onargarriak, izan ere, Hasierako Dokumentuan proposatutako ibilbide guztiek neurri batean edo bestean babestutako eremuei eragiten die, Red Natura 2000 barne. Guztira, goi-tentsioko lineak Europa, Estatuak, Nafarroa edota Euskal Autonomi Elkartearen legediek babesten dituzten berrogeita hamar eremu ezberdinetan izango luke eragina. Hain zuzen ere, kontuan hartzen diren 19 zatietatik 17-tan babestutako eremu edota espezieren baten gain eragina izango du, eta ondorioz, proposatzen diren 69 aukera ezberdinetatik bat berak ere, ingurumen ikuspegi batetik, ez lituzke beteko gutxiengo baldintzak.

Gauza bera gertatzen da osasunean eragina duten eremu elektromagnetikoekin, aukera ezberdinetatik bat berak ere ez baititu betetzen Europar Batasunak aholkatzen dituen badezpadako distantzia irizpideak. Zehazki, 19 zatietatik, 14-tan herri gunek daude 500 metroko distantzia baino gutxiagora, Nafarroa eta Gipuzkoako 43 herri ezberdin hain zuzen ere. Hasierako Dokumentuan ageri diren 69 aukera ezberdinak aztertuko bagenu zatiz zati, konturatuko ginatke pasabide bat bera ezin dela onartu, guztietan gutxienez herriren bat aurki baitezakegu segurutzat hartzen den distantzia baino gutxiagora.



Guzti honi zenbait arlotan dauden informazio eskasi larriak erantsi beharko genizkioke, esaterako, esparru sozio-ekonomikoan, aisialdi eremu eta turismoan izango dituen eraginak, patrimonioan izango diren ondorioak edo zeharkatzen dituen lurraldeetan dagoen arautegiarekin bultzatzen den lurralde ereduakiko bateragarria den edo ez.

Proiektu honek Nafarroa eta Gipuzkoako lurralde zabal bati oso era negatiboan eragingo diolakoan, paisaian, ingurumenean, herritarren osasunean, ekoizpen azpiegiturretan edo lehen sektorean izan ditzakeen eraginengatik,

Udal honek ONARTZEN du:

- 1.- Gipuzkoako Itsasoko azpiestazioa eta Dicastilloko 400/220 kv azpiestazioa lotuko dituen 400 kv-ko Linea, eta Dicastillon aurreikusten den azpiestazioaren proiektuarekin erabateko desadostasuna azaltzea.
- 2.- *Red Eléctrica de España, S.A.*-ren Hasierako Dokumentuan ageri diren balizko pasabide guztiarekin erabateko desadostasuna azaldu, eta era berean, Goi-Tentsioko aipatutako Lineak ez duela inongo justifikaziorik interes orokorrerako.
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei, EAEko Gobernu eta Parlamentuari, eta Ingurumen eta Nekazaritza eta Itsas Ministerioari aipatutako proiektuari ezezkoa eman diezaioten eskatzea, interes orokorrerako klabeak diren eremuetako paisaian eta ingurumenean onargarriak ez diren ondorioak izan ditzakeelako.
- 4.- Akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundiari eta EAEko Gobernuari, Ingurumen, Nekazaritza eta Itsas Ministeriora, eta Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministeriora bidaltzeaz gain komunikabideen bitartez publiko egitea.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du ulertzen dutela mundua dihoan bezala energiaren beharrei irtenbide bat ematen saiatu beharko dela. Esaten du baita ere, bestalde, egokiena linea berria lehengo bidean oinarrituta egitea izango litzakela. Esaten du baita ere, bestalde, aukeratzen den bideak inguruari eta pertsoneri ahalik eta kalte txikiena egingo diena izan beharko lukeela, eta mozioak ezezkoa bakarrik planteatzen duela alternatibarik planteatu gabe, eta horren aurrean abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du abstenitu egingo dela. Eta gehitzen du ingurugiroarekiko inpaktuarena ulertzen dutela batzuek eman nahi dioten dramatikotasunarekin bat ez baldin badatoz ere, baina bestalde beharrezkoa dela ikusten dutela gizarteak gaur egun duen energiaren kontsumoari aurre egiteko azpiegiturak behar direlako eta hori ezin dugulako ahaztu. Baita ere esaten du dokumentazioa bi hizkuntzatan bidaltzearenean berresten dela berriro ere.

Alkateak azkenean esandako honi erantzuten dio mozio hau bi hizkuntzatan dagoela eta berak behintzat hala daukala eta berari horrela ez bazaio iritsi akatsen baten ondorioz izango dela, ez behintzat horrela bidali ez delako.

Guzti honen ondoren eta gaia bozketan jarri ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta sei abstentziorik (EAJ, PSE-EE) mozioa onartu egiten du.



IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

